



SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan  
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI  
2024/09/22

NIF: P3105000H

Espedientea 109952M

**2024KO UZTAILaren 23ko EZOHIKO ETA PREMIAZKO OSOKO BILKURA**  
**SESIÓN PLENARIA EXTRAORDINARIA Y URGENTE DE 23 DE JULIO DE 2024**

Baztango Udaletzeko bilkura aretoan, 2024ko uztailaren 23an, 08:00etan, Baztango Udala Osoko Bilkuran bildu da, ezohiko eta premiazko bileran, Fernando Anbustegi Goñi alkate-udalburu jauna buru dela, eta zinegotzi hauek etorri dira: Mariano Iribarren Irigoyen, Alaitz Arretxea Etxeberria eta Gorka Urtasun Saldias, EH-BILDU taldekoak; Florentino Goñi Tellechea eta Iñigo Iturralde Eliceche, ZUREKIN-CONTIGO BAZTAN taldekoak; Pello Sarratea Sanzberro, BAZTANGO INDEPENDIENTEAK / INDEPENDIENTES DE BAZTAN taldekoa; Anastasio Nagore Garralda, UPN taldekoa; Lander Mattin Santamaria Alcocer, GEROA BAI taldekoa.

Ez dira bertaratu: Jose Luis Retegi Iturbide, Lorea Lizarreta Insausti, Joseba Moreno Videgain eta Andoni Irigoyen Maritorea

Idazkari lanetan Iulen Urbiola Loyarte jauna aritu da.

Alkateak hasiera eman dio bilkurari.

**1.- DEIALDIA PREMIAZKOA IZATEA BERRESTEA.**

Nafarroako Toki Entitateko 6/1990 Foru Legearen 78.1 artikuluari eta Toki Entitatean Antolamenduaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren gaineko Erregelamendua ezartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 79 artikuluari jarraituz, Udalbatzak deialdiaren premiazko izaera bertaratutakoek aho batez **berresten dute**.

**2.- “BIDASOAKO BIDE BERDEA EGOKITZEKO LANAK, DONEZTEBE, BERTIZARANA ETA ELIZONDO ARTEKO TARTEAN” PROIEKTUA ONARTZEA.**

“Bidasoako Bide Berdea egokitzeko lanak, Doneztebe, Bertizarana eta Elizondo arteko tartean” izeneko proiektua ikusi da. Cederna Garalur elkarteak sustatu du, eta KREAN, S.COOP. enpresako Juan Carlos Ovalle Cortissozek, bide, ubide eta portuetako ingeniariak idatzi du.

*En la sala de sesiones del Ayuntamiento del Valle de Baztan, siendo las 08:00 horas del día 23 de julio de 2024, se reúne, en sesión extraordinaria y urgente el Pleno Municipal, presidido por el alcalde-presidente Fernando Anbustegi Goñi y con la asistencia de los siguientes concejales: Mariano Iribarren Irigoyen, Alaitz Arretxea Etxeberria y Gorka Urtasun Saldias, por el grupo EH-BILDU; Florentino Goñi Tellechea e Iñigo Iturralde Eliceche, por el grupo ZUREKIN-CONTIGO BAZTAN; Pello Sarratea Sanzberro por el grupo BAZTANGO INDEPENDIENTEAK-INDEPENDIENTES DE BAZTAN; Anastasio Nagore Garralda por el grupo UPN; Lander Mattin Santamaria Alcocer, por el grupo GEROA BAI.*

*No asisten: José Luis Retegi Iturbide, Lorea Lizarreta Insausti, Joseba Moreno Videgain y Andoni Irigoyen Maritorea*

*Actúa como secretario D. Iulen Urbiola Loyarte.*

*El alcalde da comienzo a la sesión.*

**1.- RATIFICACIÓN DE LA URGENCIA DE LA CONVOCATORIA.**

*En virtud de lo establecido en el artículo 78.1 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de junio, de la Administración Local de Navarra y el artículo 79 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de organización, funcionamiento y régimen jurídico de las Entidades locales, por unanimidad de los presentes se **ratifica** el carácter urgente de la convocatoria.*

**2.- APROBACIÓN DEL PROYECTO “OBRAS DE HABILITACIÓN DE LA VÍA VERDE DEL BIDASOA EN EL TRAMO CORRESPONDIENTE A LOS TÉRMINOS DE DONEZTEBE/SANTESTEBAN, BERTIZARANA Y ELIZONDO”.**

*Visto el proyecto “obras de habilitación de la Vía Verde del Bidasoa en el tramo correspondiente a los términos de Doneztebe/Santesteban, Bertizarana y Elizondo”, promovido por la Asociación Cederna Garalur y redactado por Juan Carlos Ovalle Cortissoz ingeniero de caminos, canales y puertos, KREAN, S.COOP.*



SINATZAILEA

Baztango Udala Idazkaria  
JULEN URBIOLA LOYARTE  
2024/08/22

BAZTAN

**2024/07/23ko Osoko Bilkurako akta - SEFYCU 90707**



SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan  
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI  
2024/08/22

NIF: P3105000H

Espedientea 109952M

Udalbatzako kideek, erreferentzia-puntuari buruz, beren iritzia eta bilkura honetako audio-artxiboan jasotakoak azaldu dituzte. Hona hemen, laburbilduta:

**Pello Sarratea, Baztango Independienteak:** Bide berdearen aldekoak garen arren, abstenitu egingo gara halako proiektu batek aztertzeke denbora gehiago behar duelako. Gainera, PSISari dagokionez, bere garaian zenbait errekurtsu erregistratu ziren, eta ez dakigu ebatzi diren.

**Fernando Anbustegi, alkatea:** Nafarroako Gobernuak atzera bota zituen errekurtsu guztiak, udal honek egindakoa barne.

Alkateak bozkatzera deitu du. Proiektua ikusita eta kontuan izanik hirigintza-zerbitzuek aldeko txostena (erreferentzia: 2407i023) eman dutela, Udalbatzak, aldeko 8 botoekin eta abstentzio batekin, udalbatzako kideen gehiengo osoa osatuz, **erabaki du:**

1.- “Bidasoako Bide Berdea egokitzeko lanak, Doneztebe, Bertizarana eta Elizondo arteko tartean” izeneko proiektua **onartzea**. Cederna Garalur elkarteak sustatu du, eta KREAN, S.COOP. enpresako Juan Carlos Ovalle Cortisozek, bide, ubide eta portuetako ingeniariak idatzi du.

Baztango Udalarekin **adostu beharko dira** 2407i023 erreferentziako udal hirigintza-zerbitzuek emandako txostenean adierazitako hiri-tarteetako eta gainerako espazioetako irtenbide teknikoak.

2.- Alkate jaunari edo legezko ordezkariari ahalmena ematea dagokion eskaera egiteko, eta horretarako behar diren kudeaketak egiteko.

3.- Erabaki hau Cederna Garalur elkarteari jakinaraztea.

Jarraian, alkate-udalburu jaunak bilkura amaitutzat eman du 08:04an. Idazkari gisa, horren guztiaren fede ematen dut.

ALKATEA  
EL ALCALDE

*Exponiendo los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión y que se resumen en:*

**Pello Sarratea, Baztango Independienteak:** *Aunque somos favorables a la vía verde nos vamos a abstener, debido a que un proyecto de este calado necesita de más tiempo para su análisis. Además, en relación al PSIS, en su día se registraron varios recursos y no sabemos si han sido resueltos.*

**Fernando Anbustegi, alcalde:** *Todos los recursos, incluido el realizado por este ayuntamiento, fueron rechazados por Gobierno de Navarra.*

*El alcalde llama a votar. Visto el proyecto y teniendo en cuenta el informe favorable del servicio de asesoría urbanística municipal de referencia 2407i023, el Pleno, por 8 votos a favor y 1 abstención, lo que constituye la mayoría absoluta de los miembros de la Corporación Municipal, acuerda:*

1.- **Aprobar** el proyecto “obras de habilitación de la Vía Verde del Bidasoa en el tramo correspondiente a los términos de Doneztebe/Santesteban, Bertizarana y Elizondo”, promovido por la Asociación Cederna Garalur y redactado por Juan Carlos Ovalle Cortisoz ingeniero de caminos, canales y puertos, KREAN, S.COOP.

**Se deberán consensuar** con el Ayuntamiento de Baztan las soluciones técnicas en los tramos urbanos y resto de espacios señalados en el informe del servicio de asesoría urbanística municipal de referencia 2407i023.

2.- **Facultar al Sr alcalde, o quien legalmente le sustituya, para formular la correspondiente solicitud y realizar las gestiones necesarias a estos efectos.**

3.- **Dar traslado del presente acuerdo a la Asociación Cederna Garalur.**

*Seguidamente, por el Sr. alcalde se levanta la sesión, siendo las 08:04 horas, de todo lo cual, como secretario doy fe.*

IDAZKARIA  
EL SECRETARIO

SINATZAILEA

Baztango Udal Idazkaria  
JULEN URBIOJOLA LOYARTE  
2024/08/22

BAZTAN

Egiaztapen-aseguru kodea: 7DAA ACEA NWT7 9KF4 4JMT

2024/07/23ko Osoko Bilkurako akta - SEFYCU 90707